



Oihane
Agirre Goitia
Martinez

El único discurso válido será el pronunciado por el o la oradora en el acto.

Balioa izango duen diskurso bakarra izango da hizlariak bertan eskainiko duena.

Iñigo Urkullu Lehendakaria

2024.06.07 Karpaina ixteko mitina (Bilbo)

Aberkideok, abertzaleok, alderdikideok, lagunok, arratsalde on! Karpaina bikaina egin dugu elkarrekin. Gure programa aurkeztu dugu. Europaren garrantzia ezagutzen eman dugu. Euzko Alderdi Jeltzalearen karpaina: garbia, zehatza, zuzena, positiboa... Bihotz bihotzez, eskerrik asko denoi! Atzo, gaur eta beti... Euskadi Nazioa Europan; Euzko Alderdi Jeltzalea gara!

Bi aste hauetan Euskadik Europan izan duen ibilbidea gogoratu dugu. ‘Munduaren Bihotzean liburua aurkeztu dugu, erbestetik Eusko Jaurlaritzak gure Herriaren izena eta izana bizirik mantendu zuen. Bigarren mundu gerraren ostean, gure ordezkariek Herrien Europaren eraikuntzan zuzenean parte hartu zuten. ‘Santiagoko Zubian’ izan gara Mugarik gabeko Europa aldarrikatzen. 1933. urteko Aberri Eguna oroitu dugu; duela zortzi hamarkada ‘Euzkadi Europa’ izan zen gure xedea, egun izaten jarraitzen duena. Agirre Lehendakariaren hitzak gogoratu ditugu: “Esan Europa osoari Euzkadi zutik dagoela”. Javier de Landaburu ere oroitu dugu, gure Herriaren kausa Europan eta nazioartean defendatu zuen. Gure aurrekoak aitzindariak izan ziren: Agirre, Ajuriaguerra, Leizaola, Landaburu... Gaur, ibilbide horretan, gure esker ona eta aitorta Europa Euskadiren defentsa egunero egin duen taldeari. Jon Gangoiti, Josu Jon Imaz, Josu Ortuondo, Izaskun Bilbao Barandika... Zorionak eta eskerrik asko egindako lanarengatik. Euzko Alderdi Jeltzalearen nazioarteko lan talde osoari... Zorionak eta eskerrik asko! Europa gara, europazaleak gara...

Hoy recordamos y reconocemos a quienes nos antecedieron, a quienes en los momentos más difíciles (guerra, exilio, dictadura), siguieron defendiendo “la causa del Pueblo Vasco”, a quienes desde el Partido Nacionalista Vasco participaron en la fundación de la Democracia Cristiana Europea. Este es el compromiso que mantenemos como cofundadores del Partido Demócrata Europeo. Esta trayectoria nos demuestra que Europa es fundamental para nuestro futuro; estas Elecciones no son algo lejano y ajeno a nuestros intereses. Todo lo contrario; nos jugamos muchísimo como Pueblo y como sociedad.

Hemos hecho una campaña modélica. Izaskun dando cuenta pública del trabajo realizado, lo conseguido y lo soñado. Oihane presentando su programa, lo ambicionado y lo comprometido. Programa, propuestas, personas... Es nuestra forma de hacer política; seria, responsable, constructiva, activa... Frente a los extremismos y populismos, frente a las polémicas estériles y la demagogia de todo signo... Somos la vía central y centrada. Trabajo en equipo, constante, contra viento y marea, defendiendo los intereses de Euskadi. Aquí en Europa... ¡Partido Nacionalista Vasco!

Amaitzera noa, hauek dira nire azken hitzak, euskaldun, euskotar bakoitzari zuzenduak. Gure proiektuan pertsona dago erdigunean, pertsonen Europa eraiki nahi dugu. Horregatik, gaur, pentsa ezazu zer egin dezakezun Europaren alde, pertsonen Europaren alde, herrien Europaren alde, bakearen, bizikidetzaren, industriaren, empleguaren, ongizatearen Europaren alde... Pentsa ezazu zer egin dezakezun Euskadiren eta Europaren alde. Igandean erantzuna emateko aukera duzu: eman konfiantza Euzko Alderdi Jeltzaleari... Igandetik, orain arte bezala, izan dadila Euzko Alderdi Jeltzalea Euskal ahotsa Europan... Igandean, eman botoa Euzko Alderdi Jeltzaleari.

Gora Euzko Alderdi Jeltzalea!

Gora herrien Europa!

Gora Euskadi askatuta!